

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, MANTEON KUTSADURA AKUSTIKOA KONTROLATZEARI BURUZKOA

Arantza González García, Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkeztu dio Eneko Goia alkate jaunari, joan den martxoan LURRALDE GARAPEN ETA PLANGINIFIKAZIO BATZORDEAN Manteoko kutsadura akustikoari buruz interpelazio bat aurkeztu ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

Manteon GOe eraikina eraikitzeke obrak eragiten dituen erasanen artean, oso kezagarria da inguruan sortzen ari den kutsadura akustikoa, bai bizilagunei, bai Zubiri-Manteo ikastetxeko ikasle eta langileei eragiten ari zaiena; izan ere, obra egiten ari den lurzatiaren ondoan dago kokatuta bigarren hezkuntzako eraikina. Era berean, ez dugu ahaztu behar partzela horren aurrean Groseko anbulatorioa dagoela.

Ikastetxeko familiek, beren seme-alaben adierazitakoa kontuan hartuta, eta zaratak eragindako kalteak *in situ* egiaztatu ondoren, ikastetxearen barruan neurketak egitea eskatu zioten Udaltzaingoiari. Hala, Udaltzaingoak egindako txostenak ez du zalantzarik uzten. Ezarritako mugak gainditu dira; beraz, ebidentziak egiaztagarriak dira. Hala ere, ez da inolako esku-hartzerik egin, eta ez da ezer egin zarata murrizteko.

Obrak hasi aurretik, eskatu genuen Jaurlearitzak inpaktu akustikoari buruzko azterlana ezagutzera eman zezala, jakiteko zer neurri zuzentzaile hartu behar diren auzotarren segurtasuna eta osasuna bermatzeko, bai eta obraren garapenak eragin diezaiekeen pertsonena ere, hala nola ikasleena eta ikastetxeko langileena. Behin eta berriz eskatu ondoren, martxoko azken batzordean,

Hirigintzako zinegotzi ordezkariak azterlan hori bidaltzeko konpromisoa hartu zuen. Hala ere, orain arte ez azterlan hori bidali.

Ikastetxeko familiek jo behar izan dute behin eta berriz udal zuzendaritzetara, eta azkenean azterlan hori lortu dute. Azterlan hori 2024ko otsailean idatzi zen, hau da, obra hasi ondoren. Beraz, nahitaezko dokumentazio guztia eduki gabe hasi zen obra. Era berean, udal-administrazioak azterlana erregistratu ondoren egindako txostenetan, zarata minimizatzeke kontuan hartu beharreko zenbait neurri planteatu dira.

Ilido horretan, beharrezkotzat jotzen dugu eraikuntza-enpresak ezarri beharreko neurri zuzentzaileen kontrol zehatza egitea Udal Gobernuak, GOeren eraikuntza dela eta erasandako pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Horiek hala direla, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzako Udal Gobernuari eskatzen dio sustatzaileari eskatzen zaizkion neurriak kontrola ditzala, zarataren arloan ezarritako mugak bete daitezela, eta GOeren obrak erasandako pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko: Zubiri Manteo ikastetxeko ikasleak eta profesionalak, inguruko auzokideak eta Groseko anbulatorioko erabiltzaileak.
2. Donostiako Udaltzako Udal Gobernuari eskatzen dio obra geldiarazteko, eskatutako segurtasun- eta osasun-neurriak betetzen diren arte.
3. Donostiako Udaltzako Udal Gobernuari eskatzen dio obraren sustatzailea zigortu dezala, Manteon GOe eraikitzeko obra hasi aurretik inpaktu akustikoari buruzko azterlana aurkezteko beharrezko dokumentazioa ez betetzeagatik.

Arantza Gonzalez Garcia,

Elkarrekin Donostia Udaleko talde mistoko zinegotzia.